



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 4a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzkoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina hein batean aldatzekoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (7. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, batzorde arruntak zehazten dituen (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du. (10-19/PRO-00009).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzkoa**ATARIKOA**

Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren bidez euskararen erabilera arautu zen Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta haien menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan, eta indargabetu egin zen luzaroan indarrean izandako arau-multzo bat, honako hauek osatua: otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena; uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, zeinak

agertzen baitzuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla), eta ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duena, bai eta arau horien pean garaturiko araudia ere. Orobat indargabetzen ziren Nafarroako Gobernuaren honako erabaki hauek: 2006ko irailaren 18koa, zeinaren bidez euskararen arloko zenbait neurri hartu baitziren, eta 2006ko irailaren 25koa, Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 18ko erabakia garatzen zuena, zeinaren bidez euskararen arloko zenbait neurri hartu baitziren eta Nafarroako errepide-sareko seinaleak gaztelaniaz eta euskaraz errotulatzeari buruzko jarraibideak eman baitziren.

103/2017 Foru Dekretu horren aplikazioak eta, bereziki, haren III. tituluarenak, urratu egin du Nafarroan aukera-berdintasuna, ez baitu Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa errespetatzen Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeari dagokionez eta, horrenbestez, diskriminazioa sortzen baitu biztanle gehien-gehienentzat, zeinek ez baitakite euskaraz. Horrela, batetik, euskara merezimendu bezala baloratzeko ezartzen den portzentajea oso gainbalioa dago gure errealitate linguistikoaren aldean, eta, bestetik, lanpostu elebidunen erregulazio orokorreki eta anbiguoak egiten da, modua ematen duena Administrazioa edozein postu halakotzat hartua izateko, eta horrexek ahalbidetu du administrazio publikoetako lanpostu ugariaren hizkuntza eskakizuna aldatzea, lehentasuna euskaraz dakiten pertsonari emate aldera euskaraz ez dakitenean kaltetan.

Horregatik, foru dekretu hori asko kuestionatu dute, bai Nafarroako Kontseiluak, hasiera batean, bai nafar gizarteak ere gero, eta funtzio publikoa-

ren alorreko zenbait sindikatuk auzitegietara eraman dute.

Foru lege honek xede du foru dekretu horren ondoriozko egoerarako alternatiba bat eskaintzea aurretiazko egoera berreskuratuz, harik eta euskarak administrazio publikoetan izan den erabilerrari buruzko arau berri bat egin arte partaidetza eta adostasun sozialik handienarekin.

Era berean, eta Foru Komunitateko hurrek eremu ez-euskaldunean hezkuntza-eredua aukeratzean aukera-berdintasuna izatea ziurtatzearen, berdintasun-berme bat ezartzen da eremu horretako hezkuntza-eskaintzarako, azken urteotan berdintasun hori urratu egin baita Nafarroako Gobernuak eremu horretan D eredia aukeratzen zutenei pribilegioak emateagatik.

1. artikulua. Funtzio publikorako sarbidean euskaraz jakiteari eta lanpostuen nolakotasun soziolinguistikoari buruzko ebaluazioa.

1. Sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak ebaluazio bat egingen du funtzio publikorako sarbidean euskararen ezaguera ebaluatzeko moduari eta Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuek eduki beharreko hizkuntz eskakizunari buruz, halako moldez non aukera-berdintasuna ez baita urratuko, eta ahalik eta adostasunik handiena lortzen saiatuz.

2. Nafarroako Parlamentuari eztabaidatu eta balora dezan igorriko zaion ebaluazio hori egin ondoren, foru dekretu berri bat egingen du, euskarak Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta haien menpeko zuzenbide publikoko entitateetan izan beharreko erabilera arautuko duena. Foru dekretuak bermatu egingen du euskarak merezimendu bezala ezin izan den dituela honakoak gainditu:

a) % 6 edo % 10, herritarrekiko arreta edo tratu handieneko lanpostuetan, eremu euskaldunean, merezimendu-baremoko gainerakoari esleitzen zaion puntuazioaren aldean.

b) % 3 edo % 6, herritarrekiko arreta edo tratu handieneko lanpostuetan, eremu mistoan, merezimendu-baremoko gainerakoari esleitzen zaion puntuazioaren aldean.

c) Eremu ez-euskaldunean euskara ez da merezimendutzat joko.

2. artikulua. D ereduaren hezkuntza-eskaintza eremu ez-euskaldunean.

Eremu ez-euskaldunean, D ereduaren hezkuntza-eskaintza egingen da gainerako ereduarentako egiten denaren irizpide bereberri jarraikiz.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatu beharreko araudia eta prozedura hasiak.

1. Foru lege honen artikulua bakarrak aipatzen duen foru dekretua onetsi bitartean, berriro ere izanen da aplikatzekoa Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta haien menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautu zuen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak indarra hartzean indarrean zegoen erregelamendu-araudia.

2. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua indarrean sartu aurreko araudiari jarraiki ebatziko dira administrazio-prozedurak, baldin eta foru dekretu horretan ezarritakoarekin bat abiarazi badira eta behin betiko ebazpenik jaso ez badute.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira azaroaren 15eko 193/2017 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde autonomoetan eta menpekoak diren zuzenbide publikoko entitateetan euskara erabiltzeari buruzkoa, bai eta hura garatzen duen araudia ere.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena. (10-19/PRO-00010).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuz onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina hein batean aldatzekoa

ATARIKOA

Auzitegi Gorenak, urriaren 3ko 3256/2018 zenbakiko epaiaren bidez, lege-doktrina gisa ezarri du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsita daudela Gizarte Segurantzatik jasotako amatasunagatik prestazio publikoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen, Ez-egoiliarren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zergen Legearen aldaketa par-

tzialari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legearen esparruan.

Euskal aldundiek Auzitegi Gorenak adierazitako zentzuan interpretatu dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko beren araudi propioa; hartara, autonomia erkidego horretako amek ere baliatuko dute salbuespen hori.

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen du espainiar guztiak legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa, eta debekatu egiten du haien artean inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.

Nafarroan pertsona fisikoen errentari buruzko zerga arautzen duen manua Nafarroako Zerga Ogasunak ez interpretatu izana zergak Nafarroan ordaintzen dituzten gurasoei ere amatasungatik salbuespena aplikagarritzat jotzearen ildotik konparaziozko bidegabekeria bat da, Konstituzioaren 9.2 artikulua xedatzen duenez kendu beharrekoa dena.

Kentze hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen duen lege-arau baten bidez egin daiteke, salbuespenen artean gurasotasun-prestazioak aintzat hartzeko. Aldaketa hori atzeraeraginduna izan daiteke, Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrek ez baitu halakorik debekatzeko, eta mesedegarriagoa delako interesdunentzat.

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuategina.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, ondotik ematen den testua izanen du ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testuateginaren 7. k) artikulua:

“7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

k) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testuateginaren VI. tituluko I. kapituluaren araututa dauden familia-prestazioak, eta, halaber, administrazio publikoetako langile bai jardunekoentzat bai pasiboentzat desgaitasundun seme edo alaba bakoitzarengatik ezarritako familia-laguntza.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboaren araubide publikoetatik jasoak eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzako araubide berezi aipatuaren alternatiba gisa diharduten gizarte-aurreikuspenetarako mutualitateek norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabe dauden profesionalen aitorturiko prestazioak, baldin eta prestazio horiek badira aurreko bi paragrafoek aipatu den araubide berezian txertatuta dauden profesionalentzat Gizarte Segurantzak aurreikusitakotzat jasotzen dituzten egoera berberetarako prestazioak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak kasuko kontzeptuarengatik aitortzen duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Mugaz gaindikoa lan etekin gisa ordainduko da zergan, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lan etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren

28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, gurasotasunagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larri jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatzeko eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko neurri osagarri gisa kasuan kasuko deialdiaren bidez emandako familia-arloko laguntzak ere”.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2020ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako efektuekin.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua indargabetzen duen Foru Lege proposamena. (10-19/PRO-00011).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua indargabetzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena,
zeinaren bidez indargabetzen baita
Nafarroako Gobernuko kideen eta
Nafarroako Foru Komunitatearen
administrazioko goi karguen baterae-
zintasunei buruzko azaroaren 4ko
19/1996 Foru Legearen 3. bis artiku-
luko 5. apartatua**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 10/2007 Foru Legeak 3. bis artikulua sartu zuen aldatutako foru lege horretan, Hona testua: "Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde publikoen funtzionarioek artikuluko honetako 2. eta 3. idatz-zatietan aipatzen diren karguetako batean bi urtetik gora aritzen badira jarraian edo hiru urtez etenak eginda, osagarri pertsonal bat jasoko dute jardunera itzultzen diren unetik aurrera, dagokion mailako lansarien 100eko 25ekoa. Osagarri hori urtero gaurkotuko da, oinarrizko lansari pertsonalak gaurkotzen diren portzentaje berean, eta zuzendaritza edo burutzako edozein lanpostu betetzeari dagokion lansarietara xurgatuko dute. Idatz-zati honetan aurreikusitako osagarri pertsonalaren esleipena behin baizik ez da aplikatuko funtzionarioaren ibilbide profesional osoan."

Halatan, osagarri hori atzeraeginez jasotzeko, izaera pertsonaleko osagarri bat edo ordainsari ekonomiko bat sartu zen 19/1996 Foru Legean, izendapen libreko konfiantzazko kargu batean jardun duen Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako funtzionarioarentzat; osagarri hori, ordea, ez zegoen jasota Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuan.

Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 8. artikuluko 4. apartatuak honako hau dio: "2012. urterako, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi-karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritako osagarri pertsonala, 3. bis artikuluko 5. idatz-zatian hain zuzen, funtzionarioaren mailaren hasierako soldataren 100eko 10era murrizten da."

Osagarriaren zenbatekoaren % 10eko jaitsiera hori luzatu egin zen abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen, 1/2013 Foru Lege-dekretuaren, 10/2016 Foru Legearen, 24/2016 Foru Legearen, eta 20/2017 Foru Legearen bidez. 27/2018 Foru Legearen 8. artikuluan, ordea, ez zen luzapen hori aipatzen; beraz, langile horiek % 25eko osagarria jasotzen ari dira 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina.

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketaren testua.

Artikulu bakarra. Indarrik gabe uzten da Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua. Hortaz, foru lege hau indarrean sartzen denetik aitzina, 5. apartatu horretan ezartzen den osagarri pertsonal hori jasotzeari utziko diote osagarria jasotzen ari diren Foru Komunitatearen Administrazioako funtzionario guztiek.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra."

Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du. (10-19/PRO-00012).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Lege proposamena

ATARIKOA

Armarria, bandera eta ereserkia dira herrien nortasuna adierazteko sinbolo nagusiak.

Sinboloen eta, bereziki, banderaren esanahia eta garrantzia betidanik izan dira eztabaida eta hika-mikarako gaia intelektual, historialari, soziologo eta politikarientzat, eta horrek agerian uzten du banderak munduko leku eta herri guztietan hartzen duten eutsi ezineko indarra.

Sinboloak, bereziki armarrak eta banderak, herri baten nortasunaren, batasunaren, elkartasunaren eta bihotzaren irudikapena dira. Sinbolismo hori gizarte osoak onartzen eta bereganatzen duenean, balio zibil nabarmena hartzen du: lortzen du herri hori komunitate anitz eta aldi berean kohesionatu bat izatea, bere nortasuna kontzeptu positibo eta ireki gisa sentitzen duena, parte hartzen duen beste arlo batzuekiko harremanetan aberastu eta hobetuta.

Nafarroa historian zehar hain herri iraunkorra izanik, ukitua geratzen bada, neurri txikienean ere, komunitate berezi, bereki eta berezi gisa sendo irautea ukatzen edo deskalifikatzen delako,

bere sinboloak komunitatearen benetako irudizat jotzen ditu eta ezin du onartu higatuak izan daitezkeen intolerantzia erakusten dutenen aldetik. Izan ere, horiek beste sinbolo batzuk, beste nortasun batzuk inposatu nahi dituzte, kontrajarriak, izaera ofiziala emateko asmoz zeri eta, asko jota, komunitate-aukerarako formula bati, gertagarri bai baina probable ez dena.

Hortaz, legezko arauketa argi bat behar da, sinbolo horien erabilera babestu eta sustatuko duena, eta aldi berean botere publikoei ahalbidetuko diena zuzenketa-lan eraginkorra egitea afera honetan izan diren eta gaur egun ere gertatzen ari diren irregulartasun ugarirekin. Izan ere, zenbait udaletan beste autonomia erkidego bateko bandera jarri da, nahiz eta begi-bistakoa den Nafarroa ez dela autonomia erkidego horren parte.

Arauaketa hori Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legean jasotzen zen, baina Nafarroako Parlamentuak indargabetu egin zuen, apirilaren 6ko 3/2017 Foru Legearen bidez.

Horiek horrela, Nafarroako Foru Komunitateko sinbolo berekiekiko konpromiso ilungabea gordetze aldera, beharrezkoa da duintasuna emanen dien araudi bat berriro ere bultzatzea.

Halatan, foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen hiru sinbolo oinarritzkoen erabilerrari buruzko araubidea guztiz berreskuratzea, gure gizartearen bizitza ofizial eta arruntean agertuko direla sustatzeko eta Nafarroaren nortasuna gordetzeko neurriak taxutzeko. Aldi berean, foru lege honek egintza jurisdikzional eta administratiboetarako aukerak eskainiko dizkie botere publikoei, sinbolo horien erabilera sustatzeko eta, bereziki, babesteko.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitatearen sinboloak

Nafarroako Foru Komunitateak hauek ditu nortasun-sinbolo eskusiboak: Nafarroaren bandera, armarrak eta ereserkia.

2. artikulua. Nafarroaren sinboloen erabilera.

1. Nafarroako banderaren eta armarraren erabilera erreserbatuta utziko da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta erakundearen sinbolo edo logotipo nagusi izateko. Bestetik, debeku da banderan edo armarraren edozein sinbolo, sigla edo logotipo erabiltzea.

2. Haiek produktuen edo salerosketa-gaien jatorriaren adierazgarri gisa erabiltzeko aukera, bai eta alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo edonolako entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabiltzekoa ere, Nafarroako Gobernuak xede horrekin ezarri beharko duen erregelamendu-prozeduraren bidez eraenduko da.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira Nafarroako banderaren, armariaren eta ereserkiaren erabilera-baldintzak kirol-, kultura- eta bestelako ekitaldietan, zeinetan herritarrek Foru Komunitatea ordezkatzeko parte hartzen baitute.

3. artikulua. Babes juridikoko araubidea.

Nafarroaren sinboloek duten babes juridikoa Estatuko legeek Estatuaren sinboloei ematen dieten berbera da.

4. artikulua. Foru legearen aurkako egintzen deuseztasuna.

1. Foru lege honetan xedatutakoaren kontra doazen egintzak eta ebazpenak, edozein korporazio edo agintarenak, erabat deusezak izanen dira. Foru lege honen 19. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa gorabehera, horiek aurkaratzeko akzioa publikoa izanen da, eta Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan aurkaratu ahalko ditu, errekerimendua egin ondotik, toki araubideari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

2. Nafarroako Gobernuak, udal agintariak eta gainerako foru erakundeak bermatu beharko dute lege honetan xedatua betetzen dela eta bertako xedapenen urraketak zuzenduak izanen direla, halatan bere onera itzularaziz ukituta suertaturiko zuzenbide-ordena.

II. KAPITULUA

Nafarroako bandera

5. artikulua. Nafarroako banderaren deskribapena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 7.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako bandera ofiziala kolorez gorria da, Nafarroako armarrria du erdian, laukizuzen-forman eginiko ehunki baten gainean, zeinak luzera eta zabalera proportzional baina aldakorak izanen baititu.

6. artikulua. Nafarroako banderaren erabilera.

1. Nafarroako Foru Komunitateak sustatu egiten du bere bandera ofiziala erabil, ezagutaraz eta erakuts dadin Nafarroaren nortasunaren, Foru Komunitate gisako batasunaren eta bertan bizi diren herritar guztien arteko elkartasunaren nahiz

Espainiako gainerako herritarrekikoaren ikur bezala.

2. Eraikin edo egoitza administratiboen bereizgarri gisa Nafarroako bandera publikoki erabiltzeak ezindu egiten du haren ondoan aldi berean besterik jartzea, non ez den Espainiako, Europako edo Nafarroako toki entitate bakoitzean dagoen bandera ofiziala, lege hori bidezko denean, 8.3 artikuluan ezarritakoa salbu.

3. Foru Komunitateko herritar guztien eta bakoitzaren eskubide zibikoa da Nafarroako bandera paratuta egotea eraikinen kanpoaldean, eraikin horiek direnean foru erakundearen administrazio-egoitzen eta zerbitzuenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak eta foru sektore publiko instituzionalarenak, bai eta toki administrazioa osatzen duten entitateenak, zeinek baitaukate haien ordezkari politiko eta administratiboa. Botere publikoak eta auzitegiek eskubide hori aldeztuko dute legeetan ezarritako bitartekoak erabiliz.

7. artikulua. Erakundeek, Foru Komunitateko administrazioak eta foru-sektore publiko instituzionalak eginiko erabilera publikoa.

Nafarroako bandera lehentasuneko tokian paratuko da erakusgai, betiere Espainiakoari gailentasuna kendu gabe, honako hauen egoitza administrazio eta zerbitzu-eraikin guztien kanpoaldean: foru erakundeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta Foru Sektore Publiko Instituzionala eta, halaber, aipatu erakinen barruan, bertako agintarien bulego ofizialetan eta haietako gainerako eremu muntadunetan.

8. artikulua. Erabilera araubidea Nafarroako Toki Administrazioan.

1. Nafarroako toki administrazioa osatzen duten entitate guztiak behartuta daude Nafarroako bandera erakusgai edukitzera beren egoitzen eta beren eskumeneko zerbitzu publikoetarako eraikinen kanpoaldean. Behartuta daude, halaber, Nafarroako bandera jartzera beren agintarien bulego ofizialen barnealdean eta osoko bilkuren aretoan. Barnealdean, iraunkorki; eta kanpoaldean, egunero, gutxienez ere 08:00etatik 20:00etara arte.

Nafarroako bandera haga erdian ipini edo armarrri gainerako doinu-xingolarekin erakutsiko da Nafarroako Gobernuko lehendakariak dolu-egun ofiziala dekretatu duenean bakarrik, eta betiere hark agindutako denbora-tartean.

2. Normalean, toki entitate bakoitzeko bandera ofizialarekin batera, udalaren eraikinetan jarriko diren banderak izanen dira Nafarroako bandera

ofiziala eta Espainiakoa, urriaren 28ko 39/1981 Legean ezarritako moduan, bai eta Europakoa ere, horrela erabakitzen denean; baina ez beste ezein.

3. Salbuespen gisa, zilegi izanen da aipatu banderekin batera, baina inoiz ez bakarrik, ipintzea beste herrialde, autonomia erkidego edo toki entitate batzuetako banderak, jokabide hori adeitasun-egintza bat denean herrialde, autonomia erkidego edo toki entitate horretako agintarieko, baldin eta horiei gonbidapen ofiziala egin badie harrera-lurraldeko agintari eskudunak, eta haien bisita ofizialaren iraunaldirako, bi herrialde, autonomia erkidego edo entitateen artean egindako ekitaldietan, edo toki entitateen arteko noizbehinkako senidetze-ospakizunetan, betiere kasuko ospakizunak dirauen bitartean.

9. artikulua. Nafarroako banderaren lehentasuneko tokia.

Nafarroako bandera foru erakundeetako, Foru Komunitateko administrazioko eta Sektore Publiko Instituzionaleko egoitza eta eraikinen kanpoaldean eta barrenaldean erabiltzen denean, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehentasuneko tokian paratuko da, betiere Espainiako banderari dago-kion gailentasuna kaltetu gabe.

10. artikulua. Banderaren paratze-hurrenkera.

1. Nafarroako bandera, Espainiako banderarekin eta ez besterekin batera paratuta dagoenean, lehendakariaren edo bandera paratu duenaren ezker aldean jarriko da, eta eskuinaldean, ikusleentzat edo kalean haiei begira dagoenarentzat. Udaletako banderekin edo Nafarroako toki administrazioa osaturik bere bandera propioa darabilen beste edozein entitatearekin jartzen denean, Espainiakoaren eskuinaldean kokatuko da, bandera-kopurua bakoitia denean, eta haren ezker aldean, bikoitia denean.

Ez da zilegi Nafarroako bandera berdintasun-baldintzetan paratzea enpresen, merkataritzamarken, auzokide-elkarteen edo entitate pribatuen banderaren aldamenean.

2. Ikusgai jartzen den Nafarroako banderaren tamaina ezin izanen da Espainiakoarena baino handiagoa izan, ez eta beste entitate batzuenarena baino txikiagoa ere, horien ondoan paratua agertzen denean.

11. artikulua. Nafarroako banderaren gorazarea eta Nafarroako sinboloen sustapena.

1. Urtero, Nafarroaren Eguneko jardueren artean, Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek

bultzaturik, Nafarroako banderari gorazarre egiteko ekitaldi bat egingen da.

2. Nafarroako sinboloen ezagutza eta erabilera sustatuko dira azterlan eta ikerlanak eginez eta askotariko lehiaketa, erakusketa, entzunaldi, sari-keta edo norgehiagokak antolatuz. Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek halaber sustatuko dute Nafarroako sinboloen irudi korporatiboaren publizitatea egitea komunikabideetan, herritarrek sentsibilizatzeko aldera Nafarroako nortasunaren ikurrekiko begirune-balioetan.

12. artikulua. Nafarroako sinboloen sustapena hezkuntzaren arloan.

1. Orobat, urtero, Nafarroaren Egunen aurreko edo ondoko egunetan, eta ikastetxeetan lane-gun diren egunekin kointzidituz, ekitaldi akademiko eta kultural xumeak egingen dira Nafarroako banderaren eta Nafarroaren beste nortasun-erakusgarrien balio eta esanahiari buruz, ikastetxe publiko eta itundu guztietan, ikastetxeko zuzendaritzaren eta irakasleen ardurapean.

2. Jardunaldi edo ekitaldi horietan Nafarroako banderaren, armariaren edo ereserkiaren kopiak banatuko zaizkie dohainik, haiek eskatzen dituzten ikasleei. Kopia horiek Nafarroako Gobernuak ikastetxeari dohainik emandakoak izanen dira, ikastetxeak edo bertako irakasleek eskatuta.

13. artikulua. Sinboloak toki erakundeetan sustatzea.

1. Nafarroaren Eguneetik hurbil dauden egunetan, bultzatuko da udal eta kontzejuek beren herritarrei Nafarroako bandera, armaria edo ereserkia dohainik banatzea susta dezaten.

2. Bultzatuko da, herriko festak edo jai edo festaburuak direla-eta, alkate eta kontzejuburuak materiala bana diezaieten herritarrei, etxurre eta balkoiak Nafarroaren nortasunaren adierazgarriekin apaintzekoak.

3. Nafarroako Gobernuak udal eta kontzejuei bandera, armari eta ereserkiak emanen dizkie, dohainik, aurreko apartatuetan ezarritakoa bete dadin, eta kale eta plaza publikoak apaintzeko. Bandera, armari eta ereserkiz hornitzeak dakarren gastua Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzatuko da.

III. KAPITULUA Nafarroako armaria

14. artikulua. Nafarroako armariaren deskribapena.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege

Organikoaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako armarrria urrezko katez osaturik dago, hondo gorri gainean, esmeralda bat erdian, bere kate-mailazko zortzi besoen elkargune gisa, eta haien gainean errege-koroa, Nafarroako antzinako erreinuaren sinboloa.

Hori horrela delarik ere, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du irudi korporatibo bezala Nafarroako armarrri ofizialaren logotipo bat hartzea, diseinu grafiko soilagokoa eta garaian garaiko gustu estetikotara eguneratua.

15. artikulua. Nafarroako armarrriaren erabilera publikoa.

Nafarroako armarrria edo haren logotipoa, Nafarroako banderaren barrenean ez ezik, hauek ere egon beharko da:

a) Foru Komunitateko erakunde eta administrazio publikoen egoitzak kokaturik dauden eraikinetako agintari-bulegoak eta bilera-gelak.

b) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren ibilgailu-parkeko ibilgailuak.

c) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren ordezkari diren agintariek luzatutako edozein diploma, ziurtagiri edo titulu.

d) Foru Komunitateko erakundeetan, administrazioan eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren ofizialki erabiltzen diren agiri, inprimaki, zigilu eta menbreteak.

e) Foru Komunitateko erakundeen, administrazio publikoen eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren argitalpenak eta iragarki ofizialak.

f) Foru Komunitateko erakundeen, administrazioaren eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalaren ordezkari diren agintariek erabilitako bereizgarri ofizialak.

g) Erabilera ofizialeko zenbait toki edo objektu, haien ordezkartasun bereziagatik hala erabakitzen denean.

h) Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezartzen dituen gainerako kasuetan.

IV. KAPITULUA Nafarroako ereserkia

16. artikulua. Nafarroako ereserkia.

Nafarroako ereserkia "Gorteen ereserkia" deritzona da.

17. artikulua. Ekitaldi ofizialetan interpreta-tzea.

Nafarroako ereserkia Foru Komunitateko erakundeek antolatzen dituzten ekitaldi ofizial publiko eta esanahi berezikoaren hasieran edo bukaeran interpretatu behar da.

18. artikulua. Bertsio ez-ofizialen erabileraren debekua.

Debeku da Nafarroako ereserkia erabiltzea haren esanahi handia gutxiesten duten ekitaldi, modu edo bertsioetan.

V. KAPITULUA Zehapen-araubidea

19. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak urratzen dituzten egiteak edo ez-egiteak kapitulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, ezertan baztertu gabe egon daitezkeen beste erantzukizun batzuk.

2. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei dagokienez, zehapen-ahalmena baliatuko da bertan eta administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen arloko araudian ezarritakoaren arabera, bai eta gure ordenamendu juridikoaren arau orokorrei jarraituz ere.

20. artikulua. Erantzuleak.

Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzule dira bertan deskribatutako egite eta ez-egiteetan dolo edo erruz jarduten diren foru erakundeak, administrazio publikoak, Sektore Publiko Institutuzionala eta beste pertsona fisiko eta juridiko batzuk, ezertan ukatu gabe foru lege honen aurkako egiteak edo ez-egiteak agindu dituzten edo haiek egitearen alde bozkatu duten pertsonen erantzukizun zibila, kontabilitatekoa edo ondarekoa eskatzeko aukera.

21. artikulua. Arau-haustekak.

1. Foru lege honetan xedatutakoaren aurkako arau-haustek arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

2. Arau-hauste arinak honakoak dira:

a) Nafarroaren sinboloak produktuen edo salerosketa gaien jatorri-adierazgarri gisa erabiltzea, erabilera hori sinbolo ofizialaren erabilera apalesgarria denean, eta halaber, haiek erabiltzea alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo zeinahi entitate pribaturen sinbolo edo logotipo gisa, dagokion erregelamendu-prozeduran xedatutakoa urratuz.

b) Banderen paratze-hurrenkerarekin, tamainarekin eta haga erdian edo dolu-xingola dutela paratzearekin zerikusia duten ez-betetzeak.

c) Nafarroako armariaren erabilera publikoarekin lotutako arau-haustek, arau-hauste oso astunak ez badira.

d) Nafarroako ereserkia erabiltzea haren esanahi handia gutxien duten ekitaldi, modu edo bertsioetan.

e) Foru lege honetan xedatutakoaren aurkako gainerako arau-haustek, astunak edo oso astunak izatearen kalifikazioa merezi ez dutenean.

3. Arau-hauste astunak honakoak dira:

a) Zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren erai-kin eta egoitzetan Nafarroako bandera lehentasunezko tokian paratzeari dagokionez foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

b) Zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren erai-kin eta egoitzetan Nafarroako banderaren ondoan aldi berean beste edozein bandera jartzea, foru lege honen 8. artikuluko 2. eta 3. apartatueta xedatutakoa salbu.

c) Azken urtean izaera bereko arau-hauste ari-
netan berrerortzea.

d) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuak ez-arauzko egoera zuzenbidera dadin egindako errekerimenduak ez betetzea, arau-haustek arinak direnean.

4. Arau-hauste oso astunak honakoak dira:

a) Foru erakundeek, Nafarroako administrazio publikoek eta Sektore Publiko Instituzionalak identifikazio-bide gisa erabiltzea foru lege honetan ezarritakoez bestelako bandera, ereserki edo armariak, salbu eta Toki Administrazioarako xedatutakoa, toki mailako beren sinbolo propioak erabiltzeari dagokionez.

c) Azken urtean izaera bereko arau-hauste astunetan berrerortzea.

d) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuak ez-arauzko egoera zuzenbidera dadin egindako errekerimenduak ez betetzea, arau-haustek astunak direnean.

22. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-haustek zehapen hauek izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinek, 2.000 euro bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunek: 2.001etik 10.000 euro bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunek: 10.001etik 150.000 eurora bitarteko isuna.

2. Zehapenak graduatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Pertsoneri, ondasunei edo Nafarroaren sinboloeri egindako kalteen izaera eta astuntasuna.

b) Gertakariak gizartean izandako oihartzuna, hedabideen, sare sozialen edo plataforma digitalen bidez erabili edo ezagutaraztearen ondorioz .

c) Arau-haustek, kasua bada, lortutako etekina.

d) Egindako kalteak borondatez konpontzea edo arau-haustearen gauzatzea ekarri zuten egitateak zuzentzea, baldin eta zehapen-prozeduran behin betiko ebazpena eman aurretik jokatzen bada horrela.

3. Halaber, hertsapen-isunak ezarri ahalko dira, ondoz ondo hamabi jarri arte, hilabeteko alditan, 600etik 6.000 eurora bitartekoak, arau-hausteari arau-haustetik eratorritako ez-arauzko egoera zuzenbideratzeko errekerimendua egin ondoren hark bere borondatez ez badu hala jokatzen.

23. artikulua. Zehapen-prozedura.

1. Arlo honetako arau-haustek salatzeak akzioa publikoa izanen da.

2. Foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera arau-hauste izan daitezkeen jarduketan berri duten agintariak behartuta daude halakoak Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuari jakinaraztera.

3. Prozedurari hasiera emanen zaio Lehendakaritza arloko departamentuaren titularrak harturiko erabakiz.

4. Titulu honetan jasotako zehapenak ezartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritako prozedura-xedapenei jarraituko zaie.

5. Arau-hauste oso astunak eta astunak egiteagatik ezarritako zehapen irmoak argitaratuko dira bidezko diren bitarteko ofizialetan, bai eta foru erkidegoan zabalpen handienekoak diren egunkarietako batean.

24. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Honako hauek izanen dira eskudunak foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteengatik zehapen-espeditentek irekitzeko eta ebazteko:

a) Arau-hauste oso astunak badira, Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuaren titularra.

b) Arau-hauste astunak eta arinak badira, Lehendakaritza arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularra.

Xedapen gehigarri bakarra. Sinbolo frankistak kentzea.

Erregimen frankistaren sinbologia kentzea eta ordeztzea arautuko da azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legean, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoan, xedatutakoaren bidez.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe gelditzen dira apirilaren 6ko 3/2017 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-mailako xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea

HITZAURREA

Nafarroako tokiko mapa aspalditik datorren arazo bat da. Tokiko mapa horren gehiegizko atomizazioak –272 udalek eta 346 kontzejuk osatzen dute– zaildu egin du bere kudeaketa; halatan, Parlamentuko alderdi guztiak bat etorri dira esatean beharrezkoa dela mapa erreformatzea. Erreforma horrek, ordea, Legebiltzarreko taldeen adostasunetik abiatu behar du, mapa egonkorra izan dadin.

Aurreko legegintzaldian, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat aurkeztu zuen tokiko mapa erreformatzeko, eta hortik heldu zen gero Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea, zeinak ez baitzuen adostasun hori lortu, Legebiltzarren ia erdiak ez baitzion bere babesa eman.

Adostasun falta horren arrazoia da erreformak udalen eta kontzejuen ahultzea dakarrela eskualdeen kaltetan, eta horrek horiek desagertzea ekar

dezakeela; gainera, tokiko autonomiaren galera ekar lezake, eta ez du finantza-sistematik ezartzen finantza-askitasunaren, aurrekontu-egonkortasunaren, elkartasunaren eta lurralde-orekaren printzipioekin bat datorrenik.

Halaber, 4/2019 Foru Legea subsidiarotasun-printzipioaren guztiz aurkakoa da. Printzipio horren arabera, herritarrei gertueneko administrazioak eman behar dizkie zerbitzuak.

Hortaz, indargabetu egin behar da orain dela gutxi onetsitako araua, eta horren ordeztu printzipio horiekin bat datorren eta, finean, Nafarroako Toki Administrazioaren arazoak konpontzeko balio duen beste bat onetsi behar da, adostasunetik abiatuta.

Artikulu bakarra.

Indarririk gabe uzten da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatu beharreko araudia eta prozedura hasiak.

1. Nafarroako Toki Administrazioaren erreformatarako beste foru lege bat onetsi bitartean, berriz ere aplikatuko da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea indarrean sartu zenean indarrean zegoen araudia.

2. Kasua bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeari jarraikiz abiarazitako administrazio-prozedurak, behin betiko ebazpenik jaso gabe daudenak, foru lege hori indarrean sartu aitzin indarrean zegoen araudiari jarraikiz ebatziko dira.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, batzorde arruntak zehazten dituena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 22/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena. Kontuan hartuta ezen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 58 eta 59. artikuluek xedatuari jarraituz, arau horietan berariaz aipaturiko batzorde arrunt diren Foru Araubideko Batzorde, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde, Erregelamendu Batzorde eta Eskuera Batzordeaz gain, Mahaiak gainerako batzorde arruntak antolatuko dituela Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko Departamentuei doiturik, ERABAKI DA:

1. Adieraztea Nafarroako Parlamentuko batzorde arrunt direla, aipaturiko erregelamenduarauetan zehazturikoez gain, honako hauek:

- Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordea.
- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordea.
- Lurralde Kohesiorako Batzordea.
- Ekonomia eta Ogasuneko Batzordea.

- Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordea.
- Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordea.
- Hezkuntza Batzordea.
- Eskubide Sozialetako Batzordea.
- Osasun Batzordea.
- Herritarrekiko Harremanetako Batzordea.
- Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordea.
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordea.
- Kultura eta Kiroleko Batzordea.

2. Xedatzea ezen talde parlamentarioek eta Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkar-teak batzordeetan eta Europako Gaietarako Ponentzian izanen dituzten ordezkariak izendatzeko epea 2019ko irailaren 3ko 09:00etan hasiko dela eta hilaren 5eko 14:00etan bukatuko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
